


KABITU EZINA

Aintzane Usandizaga



Aintzane Usandizaga

KABITU EZINA

Marrazkiak: Pili Aguado

KABITU EZINA



“Ez-lekua ez da existitzen”

Peter Handke

Ez da zuzena, ezta ozenki esateko modukoa ere, baina onartu beharra du eskuak erraz izerditzen zaizkion jendeak higuin apur bat ematen diola. Imanoli ere pasatzen zaio, baina oso urduri denetan soilik, jasangarria da: artega sumatzen duenean eskutik heltzea saihesten du; ukalondotik eusten dio, edo gerritik, edo sorbaldetatik, eta horrekin nahiko.

Juanek ez du izerdi tantarik egiten, salbuespen arraroren bat ez bada, eta horrek erraztu beharko lioke tupperrari zuzen eustea, barruan duena irauli gabe. Tapa zezakeen oihal batekin, gutxiago irristatzeko, barruan zegoena kanpokoek ikus ez zezaten. Baina krudela iritzi zion horri. Edo penitentzia gisa egiten zuen, auskalo. Irristatzeagatik ez zuen arduratu behar, behintzat, ezta hamar orduko autobus bidaia hartan ere.

Ulertezina egiten zitzaion zer zela eta ziren hain es-tuak autobusetako eserlekuak; albokoekiko, aurrekoekiko. Beti zuen halako kabitu ezin bat eserleku haietan; ez zuen pentsatu nahi laurogeita hamar kilotik gora pisatzen zuen

edonork bizi beharreko kalbarioa; laurogeita hamar kilo, luze zein zabal, biak sufrikario hutsa.

Alboan zuen emakumeak zeharka begiratzen zion tupperrari. Ez zuen aintzakotzat hartu. Juan ere ez litzateke fidatuko esku artean tupper bat halako arretaz zeraman inorekin, ia zortziehun kilometroz, Gasteiztik Granadara, autobusean. Dena den, emakume hark nahikoa zuen berearekin, azal beltzaranetan ere antzeman daitekeen zurbiltasunaren arrastoak baitzituen.

Berehala hasi zen oka, gonbitoaren usain gozo sarkorak hartu zizkion sudurzuloak Juani. Ordubete baino ez zeramaten autobusean. Bederatzi ordu aurretik, bero sapa kanpoan, eta, antza, berogailua matxuraturik. Pare-parean zuten komunaren usaina lurrin festa hari gehitzeko pare bat ordu faltako zirela kalkulatu zuen.

Gogorrago eutsi zion tupperrari, beste ezer ukitzea baino hobe zela pentsatuz, emakumea gonbitoka txukun ari zela aitortu behar bazuen ere, zorroaren barruan. Tupperra eramane beharko ez balu eskainiko lioke leihoan jar zedin, gutxiago mareatzeko. Baina eramane beharra zuen, eta ez zuen gogorik leku-aldatzeak eragingo zion poltsen joan-etorri traketserako... eta beste baten atzealdeak utzitako beroaren gainean bere ipurmasailak pausatzeak ez zuen batere erakartzen. Espero zuen emakumea ez zorabiatu izana tupperrari begira.

Gonbitoaren usain itsaskorra aldentzeko, begiak itxi eta igerileku bat irudikatzen saiatu zen.

Usainek beti laguntzen zioten egoerak goxatzen. Eta, bestelakoetarako kosta egiten bazitzaion ere, lurrinak inboartzeko itzelezko irudimena zuen, edo memoria zen agian.

Baziren usain erosoak eta deserosoak, eta egoerak orekatze-ko lagungarri izan zitezkeen. Lana medio bidaiatzen bizi zela esan zitekeen, baina sukaldean aritzen zenean bestelako sentipena zuen. Berak eginiko janariaren usainak, urrun bazen ere, etxean sentiarazten zuen; kaleko *fastfood* den- den usainak, deserrian. Tentsio handiko egoeretan, aldiz, gehien funtzionatzen ziotenak usain neutroak ziren, mun- duko edozein bazterretan berberak zirenak: farmaziena, belar-dendena... eta bere gogokoena: igerilekuena. Zegoen hirian zegoela, ahal zuen guztietan joaten zen igerilekura, kloroaren usain unibersalarekin ezerosotasun eta erosotasun gehiegizkoak berdintzera. Hori zitekeen agian bere “etxe” ideiatik hurbilen zegoena.

Lasaitasuna ematen zioten, igerileku guztiek baitzituz- ten errepikatzen ziren hainbat ezaugarri, edozein hiritan: usaina, kolore hits uniformeak —kolore biziak sartzen saia- tzen zirenean denborarekin are hitsago suertatzen zirenak—, distantzia berdinak norabide berberean etengabe burutze hori. Jendeak ere ia itxura bera zuen igerilekuan. Izugarri sosegatzen zuen horrek.

Igerilekuaren usainarekin batera, Imanol etortzen zi- tzaion gogora, ezinbestean. Zaila egiten zitzaion orain esa- tea zerk erakarri zuen Imanolengandik ezagutu zuen unean. Ez zen bereziki ederra, baina itsusia ere ez, ez zuen inteli- gentzia txundigarriarik, xarma itsugarriarik... kontrakorik ere ez, ordea. Gerora ohartu zen, baina, zer zen harengandik maite zuena: egunero aritzen zenez igerian, edozein une- tan espero gabe azaleratzen zitzaion kloro usaina: belarri atzean, atzamarren arteetan, belaunen tolesduretan, ileko kiribiletan.

Gasteiz herri txiki bat iruditu zitzaion ezagutu zuenean. Txikiegia eroso sentitzeko. Linaresekoa zen jaiotzez, baina umetatik bazirudien bere gorputzeko mintz oro errebelatzen zela sorlekuaren kontra: zurbila zen oso, eguzkiak eta beroak ernegatu egiten zuten, eta gaztaroan olibondoei alergia garatu zien haien artean hazi bazen ere. Lanak ekarritako etengabe bidaia behar hori, hasieran, ezerosoa zitzatzaion, baina gerora horrek leku guztietakoa eta inongoa ez izateko aitzakia eman zion. Ataria zen bere konfort gunea, ez-lekuak: aireportuak, Ikeako altzariz apainduriko etxeak, igerilekuak. Edozein leku eta inon ez izan zitezkeenak. Horregatik hartu zuen baita ere Granada, ikasle garaiko hiria, kanpamentu nagusi bezala. Andaluziako hiri ez hain andaluzena zelako. Etengabeko Erasmus baten modukoa. Baina Imanolek bidaien joan-etorrietan eskaintzen zion Gasteizen ezkutaturiko ez-leku hartan moldatu zen pixkanaka; harik eta arrainontzia ikusi zuen arte.

Haren etxera lehendabizikoz joan zenerako, hilabete dezente zeramaten euren harremanean. Ez zen urtebetera iritsiko, baina ia. Hilabeteen pare bat aldiz egoten ziren elkarrekin, eta bizpahiru egunekoak izan ohi ziren Juanen egonaldiak. Nahiago zuen enpresak jartzen zion apartamentuan geratu – ahal zela ez zen hoteletan geratzen, sukaldean aritu ahal izateko–. Zortzi bat hilabeteren ostean, baina, Imanol bereziki tematu zen gau bat behintzat haren etxean pasatzeko, eta Juanek ez zuen argudio sendorik asmatu ezezkoa emateko.

Espero bezala, izugarri txukuna eta garbia zen Imanol: zurruna, kolore soilak, praktikoa, dena kaxetan jaso eta bildua. Apur bat erlaxatu zen. Etxea erakutsi nahi izan

zioanean, lehenago afariarekin jarri nahiago zuela esan zion, eta barre egin zion mutilak: “Ez, ez, gaurkoan nik prestatu dizut afaria. Zu eseri”. Ardo kopa ipini zion eskuan eta zerbitzatzen hasi zen. Entsalada pausatu zuen mahai gainean: kanonigoak, ahuakatea eta tipula; gari-zainzuriak pikatzeko.

Broma behar zuen izan.

“Ez naiz munduko sukaldaririk finena, baina espero dut gustatzea. Legatza labean dator gero”. Ez zuen Imanolen aurpegi antsiatsu hori gehiago urduritzea nahi, ezeroso sentitzen zen ordurako. Ezin zuen begiradaren pisua altxatu entsalada erabat berde hartatik, mantel berdearekin, zainzuri berdeekin. Ezin zuen hura jan. Musu eman zion mutilari, belarri atzean beti sumatzen zion kloro usainaren arrasto txiki baten bila, baina kolonia bota berri zuen, antza.

Ezin sosegurik topatu.

“Inporta zaizu tomate zati bat botatzen badiot entsaladari?” esan nahi zion, aski izango zen monokromia hura apurtzeko. Nork prestatzen du, baina, kolore bakarreko otordua? Ezin zuen ulertu.

Orduantxe ikusi zuen arrainontzi hura. Egongelarantz irristatu zitzaion begirada entsaladatik ihesi, begien parean geratzen zitzaion hormako altzari soilera. Imanolek ez zuen telebistarik; horrek ez zion berez enbarazurik egiten; bai, ordea, sofa telebistak beharko lukeen zulora begira egoteak. Baina, batez ere, plasma-pantaila batentzat pentsaturik zegoen hutsune hartan arrainontzi hura ikusteak ernegatu zuen. Izugarri. Etxera korrika alde egiteko gogo bizia piztu zion. Imanol han bertan uztekoa. Baina eutsi egin zion.

Kolore bakarrek platerak eragiten zioten ezinegona kontatzekotan egon zen, arreta arrainontzitik aldentzeko. Baina ezin izan zuen. Zorabiatzen ari zela eta Gasteizko gau freskoak on egingo ziola esan zuen azkenean, erdi totelka. Eta hala atera ziren. Ez zitzaion gehiegi kostatu bere apartamentura bideratzea. Imanol erraz sorgortzen zen lehen bolada hartan lardaskan hasten zirenean.

Hor eten behar zuen Imanolekin. Hobeia izango zen bientzat. Denbora pasatzen utzi zuen ordea, eta gero eta presenteago zeuden elkarren bizitzan, Imanol bere normaltasunaren parte zen jada. Ohartzerako, neurritz kanpoko zirudien hilabete haietan hainbeste sendotutako harreman bat eteteak arrainontzi batengatik.

Imanol ez zegoen goiz batean, arrainontziaren parean jarri zen, besaulkia kristalezko kubora hurbilduz, zain. Aurkitu behar zuen zer edo zer, ernegatzen zuten plastikozko landare eta zutabe erromatar-usteko itsusien artean. Ezin esango zuen zenbat minutu egon zen han. Baina azkenean aurkitu zuen bilatzen ari zena: arrain txiki bat zen, urdin iluna, eta joan-etorri inozo haien artean beti ezkerretara egiten zuen bira. Beti. Begira geratu zen denbora luze hartan, beti. Itxaropena eman zion horrek. Eta pozik joan zen lanera, berandu baina pozik.

Handik aurrera, egunero geratzen zen tarte luzez arrainontziari begira, goizetan eta gauetan batez ere. Ez zion hutsik egin bere lagun urdinak: beti egiten zuen bira ezkerrentzat. Arrainontzia, inozo eta gorrotagarri izatetik, atsegin eta lasaigarri izatera igaro zen arraintxo hari esker. Imanolek ernegatzen zuenean, edo zerbait lekuz kanpo egiten zuenean, arrain ezkertia bilatzen zuen Juanek begiez,

eta jirek alde berdinerantz joaten jarraitzen zutenean lasaitu egiten zen.

Baina gauzak behartu egin zituen Imanolek.

Bigarren arrainontziaren etorrerak eraman zuen Juan psikologoarengana. Terapiara behartu zuela esango luke, ia. “Terapia” hitzak beti eman zion higuina, batez ere Imanolen lagun *cool* haien ahotan, nutrizionistarenera joateaz edo *crossfit* egiteaz mintzatzen zirenean zerabilten tonu beberaz egiten zuten gainera, dena pak batean saldu izan baliete bezala.

Kontua da, bere burua kontsultan ikusi zuela egun batean, Imanoli deus esan gabe noski, eta sartu bezain pronto jakin zuen ez zela ideia ona izan, hura ez zela bere lekua. Aulkian esertzerako, neurria hartzen ari zitzaiola sumatu zuen. Erraz asma zezakeen zer diagnostiko –aurreiritzi bat, azken finean– egingo zuen bere baitarako psikologoak bera ikusita: laukidun alkandora, jeans urdinak, bota marroiak. Beti berdin jantzita. Neguan eta udan. Ez zituen sandaliak jartzen, ezta zapatilak ere, mahuka motzeko kamisetaren bat bero asko egitekotan. Eta Gasteizen finkatu zenetik ez zuen behar gehiegi izaten horretarako. Galtza motzak sekula ez. Beno, lehen egunean hainbestera ez zen helduko, baina bai ohartzera beti itxura bera zuela. Berrogei urterekin hogeita bost zitueneko itxura bera zuela, hori esaten zioten beti. “Deabruarekin tratua eginda hago hi”; baina ez zen hala. Nahikoa zen pertsona baten eskuei erreparatzea bere benetako adina jakiteko. Eta bereek bazituzten berrogei urte. Genetika ona zuen, horixe zen dena. Eta ez zuen gehiegi edaten, sobera jaten, ordu txikiak arte lanik egiten. Ez zituen gehiegikeriak maite.

Kontua zen lehen egunetik aterako ziola fitxa, eta hari lotzen saiatuko zela handik aurrera Juanengan ikusten zuena, harengandik entzuten zuena. Hala funtzionatzen zuten, ez zeukaten eskua irakurtzen dizuteneniko ezberdintasun gehiegirik. Baina bera ez zuen erraz harrapatuko. Lehen egunetik eduki zuten elkar neurtze tentsiozko hura.

María gazteagoa zen, nahiz eta irribarre leun, formal harekin disimulatzen saiatu. Horrek ez zion konfiantza gehiegirik eman, hasteko. Betaurreko marroiak zituen, finak, ez pasta lodikoak, eta ez zituen aldatzen egunaren, arroparen arabera, moda inozoen menera. Horrek eman zion zalantzarako tarte bat, berehalakoan altxatu eta ez joateko; baita goxatzen saiatzen zen begirada zorrotzak ere.

—Esadazu, Juan, zerk ekarri zaitu nigana?

—Gomendio bat izan zara.

—Ez dut hori esan nahi.

—Nire mutil-lagunaren arrainontziek.

Ez zion sinetsi, noski.

Psikologoak arrainontziak zer adierazten zuen jakin nahi zuen. Baina ez zegoen besterik. Bestalde, hutsegite handia izan zen Juanen aldetik kontatzea nola arrain urdinari esker orain eramangarria zitzaion lehenengo arrainontzia; nola, are gehiago, lasaigarri zitzaion. Psikologoak irribarre egin zuen, baina ez ohiko irribarre izoztu hori; bere buruaz harro zegoen irribarre hark ihes egiten zion ohiko neurriari. Kontatu zion hura ondo zetorkion, antza, lehen egunetik bere gogoan osatu zuen Juanen fitxari.

Baina arrainontziak ziren arazo bakarra.

Ezin izan zuen Imanolen aurpegia gehiago jasan, etxera gonbidatzen zuten edonori —gero eta bisita gehiago

zituzten, gainera— azalpenak ematen: “Hau ur beroko arrainentzat da eta hau ur hotzekoentzat. Bagoaz pixkana gure arrain familia osatzen, kontu handiz, ongi molda daitezten. Tenperatura ezberdineko ontziak izateak laguntzen du, baina dena den kontuz egin beharreko prozesuak dira. Bi alboetara itsasoa izatea bezala da, ez duzu uste? Edo hobe: ur hotz eta epeleko arrainen artean batera murgiltzeko aukera. Hain da lasaigarria ikustea nola mugitzen diren... handik hona, batetik bestera... hainbeste kolore. Jakitea ez dutela beste ezertan pentsatzen, ez dituela beste ezerk kezkatzen. Mugimenduan egoteak soilik. Juanek dio gure metafora bat ere izan daitekeela, igerilekuan ezagutu baikinen, jira eta buelta arrainak bezala”.

Ez, berak ez zukeen inoiz halako inozokeriarik esango.

Bi urte pasa ziren lehen arrainontzia ikusi zuenetik bigarrena jarri arte. Eta bazeramaten urte erdi elkarrekin bizitzen “sorpresa” eman zionean. Ordurako lortua zuen kontu handiz eta apurka Imanolen entsalada monokromatikoak kolorez sabotageatzea. Lortua zuen Imanolek bere zorroa ohearen gainean ez uztea, edo harraskara ezer ez botatzea, ezta ustez onak diren kafe kondarrak ere —ziur zegoen hori asmakeria hutsa zela—. Eta ordainetan berak saiakera egiten zuen arrainontzira ohitzeko, arrainontzia zegoen zulo inozora, hari begiratzen zioten sofa are inozoagoetara. Arrain urdinaren sekretua berarentzat gorde zuen, psikologoari aitortu zion arte, behintzat; baina, antza, orain Imanolek uste zuen berak ere maite zuela arrainontzia, zutabe sasi-erromatar eta koloretako landare horiekin guztiekin.

Arrainen memelokeria hura bisitei Imanolek nola azaltzen zien entzutea gero eta gutxiago jasaten zuen, ados.

Baina izutu ere egin zen arreba bisitan etorri zitzaion hartan bere ahotik atera ziren hitzak entzutean.

Hori gehiegi izan zen.

Rocío etorri zen Linaresetik, eta Imanol lanean zela aprobetxatu zuen arrebari etxea erakusteko, hartara arrainontzien bisita gidatu lotsagarri hura saihesteko. Bere sorpresarako, baina, egongelara heltzean hitzak bakarrik irten ziren bere ahotik, eta mutil-lagunaren azalpena errepikatu zuen, metafora inozo eta guzti, automatikoki ia. Museoetako gida aspertuek beti broma berak leku berdinetan errepikatzen dituzten inertziaz. Arrebak ez zion deus esan, baina halako aurpegia ipini zuen... lepoko zainak tenkatu zitzaizkion, irribarreari eusteko lanak balitu bezala. Bazkaltzeko ezagun batekin geratu zela esan zion ondoren –bazekien ez zela egia, ze lagun izango zuen Gasteizen?, baina arreba eta bien harremana halakoxea zen, gezur ero-soak erabiltzeko joera hori zuten—. Eta joan egin zen.

Hantxe geratu zen bera, bi arrainontzien erdian, ahoa itxi ahoa ireki ziharduten arrain horien guztien begiak beregan sentitzen zituela, bere inozotasunaz barre egingo balute bezala burbuilatxo bakoitzarekin. Eta zerbait lehertu zitzaion garunean, sabelean, inguruan. Ez zuen errealitatearekin berriro topo egin egongela akziozko pelikula bateko eszena bihurtu zen arte. Beira zatiak nonahi, arrainak lurrean buztankada etsituekin, ahoa itxi ahoa ireki. Baina orain ez zerien barre-burbuilarik. Kristal zati asko gorri bizikoak ziren. Akuarioetako dekorazio absurdo eta guzti, Erromako inperioaren erorketa zirudien hark, arrain erraldoiak arrastaka zeramatzan uholde baten ostean.

Egia esan, mila gezur esan ahal zituen bere burua zuritzeko. Baina ospa egin zuen. Ez zuen izerditzearen sena izango arriskutik ihes egiteko, animalia askok bezala, baina bazuen kudeatu ezin zituen egoeretatik bi aldiz pentsatu gabe ospa egiteko bulkada.

Tupperrean bueltaka zebilen arrainari begiratu zion, beti ezkerrerantz, zentimetro gutxiko bidea bazuen ere. Ezin izan zuen arraintxo urdina han utzi. Tupperrean sartu eta berarekin eraman zuen, Granadarantz, Imanolek jakin gabe oraindik ere mantentzen zuen apartamentura. Ez zekien oso ondo zer egin berarekin... baina jada ohitu zen haren joan-etorri ezkertietara.

Soa altxatu eta alboko emakumearen begiradarekin egin zuen topo. Azkar biratu zuen burua pasillora. Kolore hobearen zuen orain, behintzat.

Granadara heldu bezain pronto arrainontzi bat erosi behar zuen.